

ZARAUTZEN ASTIKO KAMIOI-APARKALEKUA ERABILTZeko BARNE-ARAUDIA

Udalerrian sortutako arazoaren aurrean eta garraio-sektoreak gune egoki bat edukitzeko premiari erantzuteko eraiki da Astiko kamioi-aparkalekua, sektore horren benetako lanabesak diren industri-ibilgailuak aparkatu ahal izateko.

Garraiolariak ordezkatzeko dituzten SINTRAGI eta GUITRANS elkarteek ZARAUZKO UDALarekin izandako negoziazioen ondorioa da aparkalekua. Udalak gune hau egokitzeko egindako inbertsioaren ostean, aparkalekuaren ustiapena bere gain hartu du APARCAMIENTO LINTZIRIN GUITRANS SINTRAGI AIE ekonomia-intereseko taldeak, alde zuzenetik finkatutako baldintzetan.

Araudi honek aparkaleku honen erabilera eta barne-araubidea arautuko ditu.

1. artikulua. Gaia

Aparkalekuak, merkantzien garraiorako ibilgailuentzako zerbitzu eta erabilera publikoa izango du helburu.

Kudeatzaileek aparkaleku-plazak bestelako ibilgailu-erabileentzat gordetzeko eskubidea izango dute, baldin eta zirkunstantziak hala agintzen badute.

2. artikulua. Aparkalekuaren erabilera.

Erabilera-eredu bakarra egongo da:

A) Abonu-ibilgailuak. Elkarte ustiatzaileek ordainketa-mota desberdinak finkatzeko eskubidea izango dute, trafiko-intentsitatearen eta aparkalekuaren funtzionamenduaren arabera.

3. artikulua. Abonu-erabiltzaileak.

Erabiltzaile hauek baimenduta dute sarrera eta baita, industri-ibilgailua erabiltzen duten bitartean, horretarako alde zehaztutako beren turismo-ibilgailuak aparkatzea ere, baldin eta horientzako behar adina lekua badago.

Aparkalekutik sartu eta irtetzeko giltza, urrutiko managailu edo aparkalekura sartzeko txartela erabiliko da.

Abonu-plazak gordetzerakoan lehentasuna ezarriko da, Gipuzkoan eta, bereziki, Zarautz inguruan bizi diren garraiolariak lehenak izan daitezten.

4. artikulua. Merkantzia arriskutsuen ibilgailuak.

Merkantzia arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuak, horretarako egokitutako partzeletan aparkatu behar dute. Horregatik, arrisku-gehigarri bat ordaindu behar dute.

Aparkalekuan sartu baino lehen, garriatutako merkantziaren erantzukizun zibileko aseguru-poliza eskatuko zaie; poliza horrek arriskuak estaltzen ez baditu, debekatu egingo zaie sartzea eta aparkatzea.

5. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak.

Aparkalekuaren erabiltzaileek honakoa bete behar dute:

- a) Hileko kuota eta eskatutako gainerako kanonak ordaindu.
- b) Instalazioaren barruan martxaren noranzkoa errespetatu, sartu eta irteteko atea ezarrita dagoen bezala erabiliz.
- c) Ibilgailua bakoitzak bere partzelan aparkatu.
- d) Zaborrak horretarako jarritako edukinontzietan bota.
- e) Instalazio barruan ez da inolaz ere baimenduko ibilgailuen mantentze-lanik egitea, ezta objekturik pilatzea ere.

6. artikulua. Kudeatzaileen betebeharrak.

Kontzesiodunak honakoa bete behar du:

- a) Instalazioen (kamerak, ateak, txabola, paperontziak, etab) mantentze-lanak eta konponketak egin.
- b) Sor litezken gatazkak erabaki.
- c) Unean unean aparkalekuari dagokion ororen berri eman.

7. artikulua. Arau-haustek.

Arau-haustek arin, larri edo oso larriak izango dira:

A) Oso larriak:

- Instalazioetan edo aparkatutako ibilgailuetan kalterik sortzea, intentzio txarrez.
- Irabazia atera nahi izatea, instalazioak eskaintzen duen estalduraz baliatuta, horretarako iruzurra erabiliz.
- Instalazioaren barruan gainerako erabiltzaileei edo aparkalekuaren arduradunei ekintzez eraso egitea.
- Ezarritako prezioa elkarren segidako bi hilabetetan ez ordaintzea.
- Giltza, urrutiko managailu edo aparkalekura sartzeko txartela hirugarrengoei lagatzea.
- Merkantzia arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuen kasuan, ibilgailuak eurentzat bereziki egokitutako partzeletan ez aparkatzea.
- Merkantzia arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuen kasuan, ibilgailuak bete beharreko sergutasun-neurri minimoetan ez edukitzea.
- Sei hilabeteko epean bi hutsegite larri edo lau arin egitea.

B) Larriak:

- Instalazioetan edo aparkatutako ibilgailuetan, intentzio txarrik gabe, sortutako kalteak aparkalekuaren arduradunei ez jakinaraztea.
- Ibilgailua partzela bakoitzaren mugen barruan ez aparkatzea.
- Gainerako erabiltzaileei edo aparkalekuaren arduradunei hitzez eraso egitea.
- Instalazioaren barruan ibilgailuen mantentze-lanak egitea.
- Zaborrak horretarako jarritako edukinontzietatik kanpora bota edo lagatzea.
- Instalazio barruan objektu pertsonalak pilatzea.
- Ezarritako prezioa hilabete batean ez ordaintzea.
- Sei hilabeteko epean bi hutsegite arin egitea.

C) Arinak:

- Sartzeko txartela edo ordainketaren txartel magnetikoa galtzea.
- Zerbitzuaren prestazioen martxa ona oztopatuko duten ekintza edo hutsegiteak.
- Istripu arinik sortuko duen ardurarik eza.

8. artikulua. Zigorrak.

Arau-hauste mota kontuan hartuta mailakatuko dira zigorrak. Horrela, zigorrak oso larri, larri eta arinetan banatzen dira:

A) Oso larriak: Urtebeteko epean zerbitzua erabiltzeko erabateko debekua. Aruak behin eta berriz hautsiz gero, erabateko debeku mugagabea.

B) Larriak: Hirutik sei hilabetera kontratu-lotura etetea, zerbitzuaren prestazioa barne.

C) Arinak: Idatzizko kargu hartzea. Hiru hilabetera arte kontratu-lotura etetea, zerbitzuaren prestazioa barne.

9. artikulua. Legezko akzioak.

Espedientean dagoen guztia, hau da, bai salatutako ekintzak jasotzen dituzten karguen plegua bai ustezko arau-hausleak hilabeteko epean bere defentsan egin dituen alegazioak, ikusi eta gero, hori guztia jasotzen duenetik gehienez ere hilabeteko epean erabakiko du kontzesiodunak.

Alegaziorik ez badago, salatutako ekintzak zigor-proposamentzat hartuko dira eta horiek inplizituki onartu izana ulertuko da. Kasu horretan, alegazio-epea igarota, ustezko arau-hausleak kontrakoa esateko eskubidea erabili ez duenez gero, salatutako ekintzak irmotzat joko dira. Espedientearen erabakiaren aurrean ezingo da inolako errekurtsorik jarri.

10 artikulua. Alegazioak, erreklamazioak eta iradokizunak.

Erabiltzaileek beren esku izango dute une oro instalazioen eta prestatutako zerbitzuen egoerari buruz alegazioak, erreklamazioak edo iradokizunak egiteko aukera.

Lehen Xedapen gehigarria. Indarrean sartzea.

Jarduerako barne-araubide hau 2003ko abuztuaren 1ean sartuko da indarrean.

Azken xedapena.

Kontzesiodunak eskumenez baloratuko du barne-araudi honetan jasotako beste edozein kasu.

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Barne-araudi hau 2002ko uztailaren 11n egindako bilkuran onestu zuela Udal honetako Gobernu Batzordeak.

Zarautzen, 2002ko uztailaren 15ean
Idazkaria

EGINBIDEA.- Jasoarazteko Araudi honen aldaketa 2003ko uztailaren 30ean egindako bilkuran onestu zuela Udal honetako Gobernu Batzordeak.

Zarautzen, 2003ko abuztuaren 4an
Idazkaria